

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4767

1264/2019 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Ospitale-Pediatriako Mediku kategorian, Profila: Neonatología, lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiarenekainaren 4ko 483/2019 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Ospitale-Pediatriako Mediku kategoriako oinarri espezifikoak, Profila: Neonatología.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

ERANSKINA

FAK. ESP. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA,

PROFILA: NEONATOLOGÍA

Presidentea:

- Titularra: Belinda Alonso Del Val.
- Ordezkoa: Carlos Canduela Fernández.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Ainhoa Aguirre Conde.
- Ordezkoa: Miren Alicia Apilánez Urquiola.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Miguel Ángel Cortajarena Altuna.
- Ordezkoa: Izaskun Asla Elorriaga.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Ana Aguirre Unceta-Barrenechea.
- Ordezkoa: María Estévez Domingo.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Sara Ansó Oliván.
- Ordezkoa: Margarita Ferrer Arriazu.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Francisco Javier Ayala Curiel.
- Ordezkoa: María Elena Alustiza Martínez.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Javier Calzada Barrena.
- Ordezkoa: Beatriz Álvarez Martín.

Idazkaria:

- Titularra: Javier Arispe Ruiz de Gauna.
- Ordezkoa: Francisco Javier Fuertes Machín.